

Konpromisoa tokian tokiko produktuekin

**EROSKI, HEMENGO GAZTA TRADIZIONALA
BERRESKURATZEAREN ALDE**

- Gazta autoktonoaren aldaera berriak saltzen ditu dendetan, behi, ardi, eta ahuntz esnez eginak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Eusko Label zigiluarekin
- EROSKI eta Eusko Jaurlaritza elkarrekin ari dira lanean joan deneko hamabost urtean tokiko produktua sustatzen eta lehen sektorea dibertsifikatzen
- EROSKI k konpromisoa hartua du bere denden inguruneko elikagaiak merkaturatzeko; horrela, lehen sektore iraunkorrago bat bultzatzen du, eta ekoizpen ehunaren dibertsitate maila handiari eusten dio

Elorrio, 2021eko martxoaren 18a.- [EROSKI](#)k apustu egin du Euskal Gaztak proiektuaren alde. Horren helburua da Euskal Label ziurtagiria duten gazta autoktono tradizionalen aldaerak berreskuratzea; garai batean egiten ziren gaztak dira, baina denborarekin estimazioa galdu dutenak. EROSKI k ekimen horren alde egin du bere dendetan horrelako lau gazta aldaeraren erreferentziak salgai jarrita, eta haren asmoa da gainerakoak datozen hilabeteetan jartzea.

Kalitate handiko gaztak dira; hemengo behi, ardi eta ahuntz esnearekin eginak, eta Eusko Label zigilua dute: horri esker erakusten da jatorritik direla kalitate handiko produktuak. Bai esne ekoizpenak eta bai gazta egiteko prozesuak irizpiderik zorrotzenak betetzen dituzte. Proiektuak sei aldera berri ditu: Fraisoro, Otzara, Saroi, Latxa Urdina, Txuria eta Auntzain. Esne mota desberdinekin eginda daude, zapore eta testura desberdinak dituzte, eta, hortaz, erabilera eta une askotarikoetarako dira.

Gazta aldaera horietako bakoitzak bere etiketa du, eta hor dator zein animaliairen esnetik egin den eta ustiapen propiokoa ote den; horrez gain, Eusko Label ziurtagiria

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G.

LANDAZABAL

EIZQUIERDO@CON

SEJEROSDELNORTE.COM

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

EDURNE

IZQUIERDO

azubiaga@cons

ejerosdelnorte.com

[om](#)

dakar, zeinak erakusten baitu esne ziurtagiridunarekin ekoitzia izan dela, baita kalitate eskakizun zorrotzak bete dituela ere.

Proiektu honetan, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu zuen tokiko produktua babesteko eta sustatzeko; horrek, hala berean, EROSKIk HAZI Fundazioarekin duen lankidetzaz indartu du, HAZI baita Eusko Labelaren ziurtagiria daraman erakundea. Laz eta pandemia hasi zenetik, EROSKIk hitzarmen txikiak egin ditu ekoizleekin, nekazaritza kooperatibekin eta erakunde publikoekin (HAZIrekin esaterako), eta helburua izan da haien ekoizpen sailak merkaturatzen laguntzea, galduak baitzituzten ohiko salmenta kanalak. Kasu honetan, behi, ardi eta ahuntz esnari balioa ematea izan da kontua, eta aldi berean, gazta sektoreari laguntzea.

"Tokiko produktuen eta sasoian sasoikoen eskaintza zabala gure dendan bereizgarri bihurtu da. Tokian tokiko produktuekin dugun konpromisoa igotzen ari da urtez urte, eta gaur egun, COVID-19aren egoera zaila dela medio, lehentasuna ematen ari gara nekazaritzako elikagaien ekoizle txikiak babesteari eta haiekin kooperatzeari, lehen baino are eta indar handiagoz. Tokian tokiko produktuak kontsumitzeko ordua da; berreskuratu eta mantendu egin behar dira bai kontsumoa, bai lanpostuak eta bai ekonomia. Alde horretatik, gure gaztak berreskuratzeko apustu egin dugu; izan ere, gure tradizioaren eta kulturaren parte dira, eta ildo berean dihardu HAZI erakundeak ere", esan du EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

Lehen sektoreari laguntzea

EROSKIk konpromisoa hartua du bere dendan inguruneko elikagaiak merkaturatzeko; horrela, lehen sektore iraunkorrago bat bultzatzen du, eta ekoizpen ehunaren dibertsitate maila handiari eusten dio. Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzako elikagaien 450 ekoizle txikirekin dihardu kooperatibak 2.000 produktu baino gehiago saltzen. 382 milioiren erosketak egiten dizkie epe erdiko eta luzeko akordioen bitartez, eta horrek egonkortasuna dakarkio nekazaritzako elikagaien sektore iraunkor eta oso dibertsifikatu bati.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G.

LANDAZABAL

EIZQUIERDO@CONSEJERO

SDELNORTE.COM

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

EDURNE

IzQUIERDO

azubiaga@consejero

sdelnorte.com